

# Europako funtsak: Zer dute atzean?



**ASKAPENA**

Euskal Herriko  
erakunde  
internazionalista

[www.askapena.eus](http://www.askapena.eus)

## **EUROPAKO FUNTSAK: ZER DUTE ATZEAN?**

Burgesiak eraikitzen duen oro, suntsitzeko sortua da. Horrela labur dezakegu Alderdi Komunistaren Manifestuko ideia nagusietako bat. Marx-ek eta Engels-ek ohartarazi zuten, “*Burgesiak, burgesia izatekotan, etengabe aldatu behar ditu ekoizpen-bitartekoak*”. Horregatik, krisiek, berdin da zer izaera duten, funtzio bat betetzen dute kapitalaren berrantolaketan; gehiegizko esplotazioa areagotuz, irabazi-tasa handitzen dute.

### **Covid-a aitzakia da**

Ez zen Lehman Brothers-en erorketa izan, 2008an, *subprimeen* krisi entzutetsuaren kausa bakarra; eta, modu berean, ez da Covid 19a ere izan, pandemiaren hasieratik (eta lehenagotik) ikusten ari garen gertaera ekonomikoen kausa bakarra. Eta, noski, ez da Ukrainako gerra izan, inolaz ere, Europari eragiten dion energia-krisiaren kausa nagusia. Fenomeno horiek, hain zuzen ere, kapitalismoaren izaerari berezkoak zaizkien berregokitze ziklikoen prozesu baten katalizatzailetzat balio dute. Hipotesi horretatik abiatuta garatu nahi da analisi labur honen edukia; azken buruan, kapitalismoaren narratiba tranpatiari aurre egiteko diskurtso bat artikulatu ahal dezagun.

### **Krisien izaera**

Kapitalismoak, bere garapen monopolistan eta inperialistan, gero eta gehiago debaluatzen du lan-indarra, gero eta indarkeria handiagoz zukutzen ditu bitarteko naturalak, eta gero eta biolentzia gehiago darabil hegemonia bermatzeko. Krisiak, progresiboki, gero eta ohikoagoak dira, eta utzitako ondorioak, langile klasearen dimensio produktiboan eta erreproduktiboan, gero eta suntsitzaileagoak. Marxen hitzetan, “*irabazi-tasaren beheranzko joeraren legea oinarri hartuta, lanaren gaitasun produktiboa garatu ahala, garapen hori puntu jakin batera iristen denean, modurik drastikoenean jartzen da bere buruaren aurka eta, egoera hori gainditzeko, krisia behar du*”. Hau da, inbertsioa ez sustatzen amaitzen du kapitalismoaren metaketa-logikak berak, eta, ondorioz, krisia eragiten du. Krisi bakoitzaren eraginez, kapitala gehiago kontzentratzen da esku gutxitan eta esplotazio-tasa ere hazi egiten da. Horregatik, ez da arraroa belaunaldi gazteenek errepikatzea etengabeko krisiaren testuinguruan bizi izatearen ideia; izan ere, susperraldi-atzeraldi zikloetan sartzen gara, ia aldi berean.

### **Asmatutako kontakizuna, doikuntza-neurriak justifikatzeko**

Azken bi urteotan, estatuek salbuespenezkoaren erretorika sortu dute, pandemia aurreikusi ezin zela aitzakiatzat hartuta eta ustez saihestezinak ziren neurri batzuk aurreratuz, krisi honen apartekotasuna dela eta. Baina estatuek eta nazioz gairik egiturek nahiz transnazionalak hartutako neurri guztien helburua metaketa-tasa babestea eta bermatzea izan da, ez iragarri ezin zen pandemia baten ustezko ondorioak gainditzea. Eta hori da garrantzitsua argitzea eta artikulatzea, gure posizio iraultzailean. Kapitalismoa balaztarik gabeko trena den arren, badu helmuga: metaketa, bidean uzten dituen eraildakoak eta indarkeriari jaramonik egin gabe. Pandemiaren eta Ukrainako gerraren ondorioz sortutako egoerari aurre egiteko salbuespenez ezartzen ari diren eta ezarriko diren politikak, etortze bidean diren doikuntza-neurriak justifikatzeko kontaketa bat kontsolida dadin besterik ez dira; are gehiago, Covid krisiaren hasiera baino askoz lehenago aurreikusita zeuden. Horren adibide dira Europako Funtsak, pandemia aurretik abiatu zirenak.

## Agertoki honen aurrean, zer?

Azkenik, dimentsio materiala ezin denez dimentsio kulturaletik bereizi, garrantzitsua da ulertzea, kapitalak pertsonen esfera materialean eta sozialean eragina izateaz gain, esfera kognitibo eta emozionalean ere eragiten duela. Etengabeko krisiaren ideia, kapitalarekiko alternatiba faltaren sentsazioa, eta desparekotasuna saihestezina dela sinestea, hain zuzen ere, langile klasearen antolakuntza posizio iraultzaileetatik oztopatzen ari dira. Gaur egun, kapitalismoaren diskurtso erreformatzaileak (*greenwashing*, *pinkwashing*, *purplewashing*...) eta eskuin muturraren diskurtso baztertzaileak filtratzen dira, eta ezkerrean, berriz, bataila materiala eta ideologikoa galdu izanaren sentsaziopean murgilduta dago. Frederic Jamesonek esango lukeen bezala, gertuago ikusten du munduaren amaiera kapitalismoarena baino.

## Europako funtsak eta zeharkako austeritatea

Testuinguru honetan, Europar Batasunak askotariko neurriak hartu ditu, bai eskualdearen finantza-egonkortasuna bermatzeko, baita eragin geopolitikoa eta hegemonia bermatzeko ere. Europako Banku Zentralak, estatuen zorra kudeatzearen eta likidezia injektatzearen truke, hainbat eskakizun egin dizkie estatuei, eta ondorioz, bahituta geratu da haien finantza-subiranotasuna, bereziki hegoaldeko ekonomien kasuan.

Europako funtsak, hain zuzen ere, Europa suspertzeko plana dira; ekonomia berraktibatzea dute helburu, pandemiaren ondorioen ostean. Funtsen zenbatekoa bi eremutara bideratuta dago: batetik, Europar Batasunak 7 urtero egiten dituen aurrekontuetara, eta, bestetik, Covid krisiari preseski aurre egiteko Next Generation funtsetara. Funtsak *Marshall Plan* moduko bat balira bezala saldu dira: itzuli beharrik gabeko likidezia-injekzio bat, inoiz ez bezalako neurrian Europar Batasunaren historian. Izatez, ordea, hori ez da egia; izan ere, aurreko aldiarekin alderatuz gero, aurrekontu osoa %1 murriztu da. Europako Batzordearen arabera, funtsen helburuak dira, besteak beste, elkarlan publiko-pribatua indartzea, ekonomia modernizatzea, industria eraldatzea eta trantsizio ekologikoan urratsak ematea. Edonola ere, eta ikusi ahal izango dugunez, onuradun nagusia kapital pribatua izango da, funtsek metaketa- eta errentagarritasun-logikari eusten baitiote. Are gehiago, eurogunearen batasuna sendotzeko balioko dute, bai Brexitak, bai atzeraldi ekonomikoak, bai eskuin muturraren gorakadak aztoratutako euroeszeptizismoaren aurrean.

Aipa ditzagun ezaugarri esanguratsuenetako batzuk:

- **Ez dituzte eteten austeritate-politikak:** 2008ko krisiagatik Troikak ezarritako austeritate-politiken propagandarekin alderatuta, azken doikuntza-neurri (itxuraz) berrituak erretorikari erreparatuz soilik daude berrituta; hau da, oraingoek birbanaketaren diskurtso keynesiarra babesten dute, besteak beste, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren edota oinarrizko errenten igoera. Dena den, nahiz eta likideziaren zati bat itzuli beharrik ez izan, beste zati bat mailegu eta kredituei dagokie, eta, beraz, errentagarritasuna hobetuko duten doikuntza-neurrien baldintzapean dago. Horrenbestez, leku berean gaude, baina bestelako proiektio mediatikoarekin.

- **Zifrak manipulatatu dituzte:** ekonomia suspertzeko Next Generation funtsak Europar Batasunaren aurrekontu orokorraren baitan kokatuta daude. Hainbat urtetarako diseinatzen duten aurrekontuaren %50 baino gutxiago dira: Europar Batasuneko herrialde guztientzat, 750.000 milioi euroko kopurua, 2021-2026 aldirako. Ekonomia suspertzeko funtsetatik erdia baino zertxobait gehiago diru-laguntzetara bideratuko da; gainerakoa, berriz, estatuen zor publiko bihurtuko den maileguetara. Estatu espainola funts gehien jasoko duen 2. herrialdea da.

Aurreko zazpiurtekoarekin alderatuta, funtsak %1 murriztu direla ikus daiteke. Are gehiago, azken funtsetarako planek, hasieran, 2 bilioi euroko aurrekontua zuten diseinatuta; azkenerako, ordea, 750.000 milioi onartu dituzte. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzei dagokien zatia Europar Batasunaren BPG agregatuaren %0,87 besterik ez da. Zifra horiek, batetik, eta estatuak Europar Batasunaren arkitektura sostenga dadin injektatzen duten diru publiko kantitatea, bestetik, erlazionatzen baditugu, diru-laguntza hauek ez dute ezta konpentsatzeko ere balio. Espainiako Estatuaren kasuan, adibidez, bere BPGren %2koa da laguntza. Gogora dezagun, pandemiaren urte gogorrean %12 erori zela haren BPGa. Ondorioz, ustezko irtenbidea kaskarra da, eta zorra metatu besterik ez dio egingo, 2022ko lehen hiruhilekoan pilatutako %122ko zor sostengaezinari.

EAE, adibidez, Euskadi NEXT 2021-26 programaren baitan kokatuta dago. 5.702 milioi euro eskuratzea da asmoa; kasu honetan ere, ez ditu ezta konpentsatu ere egiten 2020an BPGean galdutako 7000 milioi euroak (-%9,5). Nafarroako Foru Erkidegoak, berriz, 217 milioi euro jasoko dituela iragarri da.

- **Kapital produktiboa modernizatu nahi da, eta hegemonia zurkaiztu:** produktibitatea eta errentagarritasuna galtzearen ondorio dira atzeraldiak. Egungo fasea beheranzko joeran dagoenez, Europar Batasuna eta beste ekonomia kapitalista handi batzuk formulak bilatzen ari dira kapital produktiboa modernizatzeko eta eraldatzeko, hala, Amerikako Estatu Batuen eta Txinaren arteko lehian posizio estrategikoan koka daitezen. Bestalde, proiektu europarrarekiko atxikimendua eta menpekotasuna sortzen duten harreman-markoak eratzea behar du Europar Batasunak, bereziki, Brexitaren eta pandemiaren ostean, baina baita euroeszeptizismo forman zenbait burgesia nazional mahaigaineratzen ari diren eztabaida gero eta ugariagoen ondorioz ere. 2010ean, Europako Banku Zentralak ekonomia suspertzeko aparteko programa bat ezarri zuen: PSPP (Public Sector Purchase Program); 2020an, berriz, PEPP (Pandemic Emergency Purchase Program). Bien ala bien funtzioa izan da, batetik, likidezia injektatzea, eta, bestetik, zor-bonuak eta finantza-aktiboak erostea.

Europar Batasunak, metaketa-markoa izanik, aurre egin behar die finantza-merkatu irregularraren gorabeherei; hori dela eta, Europako Banku Zentrala kuantitatiboki hazi eta hedatu egin da zor-bonuak masiboki erosiz.

Ohartzen bagara, falazia da multiplikatzailerik keynesiarraren ideia. Planteamendu horren arabera, inbertitzen gehiago gastatzeak ekoizpenaren eta errentaren igoera biderkatua eragiten du. Injektatutako likidezia zorra bilakatzen da, eta horrek enplegua suntsitu du, erosahalmena galarazi, pobrezia areagotu eta finantza-politika espekulatiboen menpe jarri.

Hegoaldeko ekonomiek, nagusiki erreskate-politika mafiosoak jasotzen dituztenek, kapital frantses-alemaniarra sostengatzen dute.

**Kontua da ezinezkoa dela hegoaldeko estatuen zor publikoa sostengatzea, Europako arkitekturaren esku-hartze zuzenik gabe.** Are gehiago, ez da lortzen zor publikoa ordaintzea; alderantziz, berfinantziazio-ziklo amaigabea sartzeko da. 2010ean, inbertsio-funts pribatuak erosi zuten zorra; orain, gehienbat, Europako Banku Zentralak du kontrola, estatu kideen politika publikoak zehazteko aitortzen zaion botereagatik.

- **Enpresa handiak izango dira onuradun nagusiak:** nahiz eta saldu diguten susperraldi plan honen helburua Covid krisiak eragindako kalte ekonomiko eta sozialak konpontzea dela, asmoa errealitate oso urrun dago. Adibidez, lehiaketa eta lizitazioetan ez da lehenetsi osasun- eta hezkuntza-sistema publikoa. Ustezko susperraldirako politikak, alderantziz, ekonomia digital eta berdeei lotutako sektoreetan negozio-hobiak garatzera bideratuta daude, hala nola hidrogenoari, gigafaktoriei eta inteligentzia artifizialei lotutakoetan. Hau da, ekonomia hegemonikoen joera berriei erantzuteko, kapital produktiboa eraldatu nahi da.

Esan bezala, Europar Batasunak pisu geoekonomikoa eta ideologikoa berreskuratu nahi du, jada influentzia galdu duen agertoki multipolarrean.

Funtsen banaketari dagokionez, %37 trantsizio ekologikora dago bideratuta eta, %20, trantsizio digitalera. Biak ala biak kontzeptu nahiko galduak, kontuan izanda, EAEn eta Nafarroan soilik, honako proiektu hauen finantzazioa dagoela barnebilduta, besteak beste: AHTarena, Nafarroako Kanalarena eta akuikultura-megaproiektu batena, lehengo Lemoizko zentrolean.

Enpresa transnazionalak eta *start up* teknologikoak izango dira funtsen onuradun nagusiak. Elkarlan publiko-pribatuaren aldarriaz, neoliberalismoak estatuaren funtzioa fagozitatzen jakin izan du, egitura pribatua arkitektura instituzionalean integratuz. Oro har, IBEX 35eko enpresek proiektuetarako jasotako diru-laguntza zifrei erreparatzen badiegu, aldea nabaria da estatuek jasotakoekin alderatuta. Ez al da kutsu neokeynesiarra duen erreskate korporatiboa? Ez al da kapitalismo berdearen erretorika merkea? Europako Banku Zentralaren likidezia jaso duten 18 enpresen artean, Repsol, Iberdrola, Enagas eta Naturgy gailentzen dira, baita ACS eta Ferrovial eraikitzaileak ere. Kapitalismo berdearen ideien haritik, Katalunian hidrogenoari buruz aurkeztutako proiektuetako batzuk sustatu dituztenak Naturgy, Suez, ICL zementera israeldarra eta Celsa altzairu-konpainia dira.

Eraldaketa produktiboaren fase honek konpentsatu egin nahi du Europar Batasunaren menpekotasun ekonomikoa, “deskarbonizatu”, baina, ondorioz, bestelako materia metalikoen menpekotasuna eragingo du (zilarra, kadmioa, kobaltoa, kromoa, litioa...).

- **Erreformatik aurreikusita zeuden:** behin enpresa pribatuak finantzazio publikoz hornitu ostean, eta “berreraikuntza berde eta digitala”ren fasea gaindituta, NGEU funtsak jada egonkortasun eta hazkunde fase bat proiektatzen dute. Horretarako, murrizketa eta

austeritate-neurriak ezarri(ko) dituzte: pentsioen erreforma; lege-aldaketak, makroproiektuak errazago ezar daitezzen; azken lan-erreforma lotsatia, nahiz eta lorpen solteren batzuk izan, ez dena irten Europako Batzordeak zehaztutako bidetik, malgutzeari dagokionez; Espainiako Estatuko lan-harremanen markoaren bateratzea...

Beraz, aipatutako guztiak erakusten digu ez dugula etorkizunik halako instituzio eta ustezko laguntzen eskutik. Hartutako neurri batek ere ez diola gure bizi baldintzak hobetzeari erantzuten; alderantziz, are gehiago estutzera eta itotzera garamatzatela, beste batzuen poltsikoak gainezka betetzearen truke. Europako Funtsen iruzurraren eta Europar Batasunaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea dagokigu.

2022ko apirila  
Askapena, Euskal Herriko Erakunde Internazionalista

